


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

220n. zenbakia
uztailla-dagonilla 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZABILE



KUKULLA'KO DONEMILIANE
- ELEIZA ZARRA (GOIKOA)
- EUSKERAZ LENENGO ESALDI IDATZIAK
- LATXAGA'K AZTERTUA

BERTSOETAN

EUZKADI

Bizi nai dozun erria zara,
Euzkadi giarratsua,
eun da berrogei urtetik gora
larri, zagoz zapaldua;
zure bizia zeure lurra da,
sortzetik, berez, artua,
lan ta izerdiz eratu dozu
erri zar onen gogua.

Euskal odola berezia da
munduko jende artean,
gure zentzunak arritu ditu
gizon aundiak lurrean;
langillea da beren izatez
euzko gogoa danean,
atxur ta laiaz eta makiñaz
ez da bildurtu lanean.

Gora euskera, gora kultura,
kale ta baserrietan,
gureak diran edertasunak
zainduko doguz benetan;
Euzko Jeltzale abertzaleak
lanaren lanez lerretan,
zentzun indarra daroazue
ezaugarri eskuetan.

PAULIN

Zuzentasuna eta egia
nai ditu gure erriak,
ori egiten aleginduko
gara euzkotar guztiak;
gora ta gora gizon zuzenak
egizko erri-zaliak,
gure bizia salbau dagigun
euzkotar zoragarriak.

Euzko Jaurlari agurgarriak,
euzko langille trebeak,
ta baserritar nekazariak
dira erriko semeak;
ernai guztiok lan egiteko
zaindu erriko bideak,
gure mariñel, itxas-gizonak
ditugu lagunkideak.



Bilbon jaio zan Arana Goiri
euzko seme leiñargia,
jakituriaz agertu eban
euskaldunen Aberria;
kristau fedeaz gizontasuna
izan zan bere egia,
Euzkadin aldez emon zituan
azur, odol ta bizia.

Danok batera, gogoz ekinda
jazoko dogu erria,
lenen lenengo zintzotasuna
izan bedi oiñarria;
gero ondoren, sortu al dedin
gizonenetzako lan barria,
euzko gizonak, or, ikusten dau
bizitza salba-bidia.



Euzko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko ere. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren ize-na ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreátegi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

EUSKERAZAINTZA'RA SARRERA

OITURA ONA

Beste akademi batzutan dan oitura ona zaintzen dau EUSKERAZAINTZA ERRI -AKADEMIA'k: Euskerazain osoa izateko, sarrerako itzaldia egin bear dala diñoana.

Euskerazaiñik geienak egin dabe sarrerako izaldi au eta gai sakonak eta ederrak entzun doguz, esaterako Zubikarai jaunak Ondarroa'ko euskereari buruz, Solozabal jaunak euskerearen duintasunari buruz, Olazar jaunak euskal abostegiari buruz, Arrinda'k euskal-antropolojiari buruz...

Ekintza ori jai-giroan egiten da, naizta oikunea edo "rito" a ondo zeaztu barik egon: Lenengo, lendakariak ekintzaren aurkezpena egiten dau, gero euskerazain batek izlaria aurkezten dau, gero itzaldia egiten da, gero itzaldiari erantzuna emoten jako eta ekintzaren amaia adierazten da.

LATXAGA NOR DAN

Latxaga jauna euskalzale bizi-bizia dogu. Paris'eko Sorbona'n iru aldiz dotore-agiria jaso, eta orretariko agiri bat euskal-aditzari buruz egiña. Amabost urte igaro dauz Laterri-Batueta. Gaur EUSKERAZAINTZA'ren barruan dogu eta eragille bizi-bizia da. Esaterako berak eraginda egin dogu Zomorroi buruz lan eder bat. Gure aldizkariaren azkenengo zenbaki osoa beteten dau.

GAIA: D'ABBADIE

Latxaga jaunak, billatzaille lez, D'Abbadie'ren agiri bat aurkeztu dau, orain-arte ez-ezaguna eta iñoz argitaratua izan ez dana eta bere euskal-lan osoa argitzen dauana.

Itzaldia entzungarria izan zan, baiña berrogei orrialdekoa izan arren amar-bat orrialde baiño ezin izan ebazan irakurri.

D'Abbadie'ren bizitza agertu euskun, batez be munduan zear bere ibillaldiak, bere ondasun ugariak, uskerea-aren aide egin ebazan lan aundiak: ikastaroak, luburutegiak, sariketak, sendiko giroa...

Baiña izlariaren ekarpenik aundiena, D'Abbadie euskalzale aundiarena dan eta gaur arte iñok iñoz agertu ez dauan agiri luze bat aurkeztea izan zan. Benetako ekarpen jakingarria gure edestirako.

AURKEZPENA

Izlariaren aurkezpena Latiegi'tar Bixente euskerazaiñak egin eban. Napparroa'ko Egunkari'tik (Diario de Navarra) idaz-lan bat artu eban oiñarri lez. Idaz-lan orretan Latxaga ta bere lankideak buru laburrekoak eta estukoak lez agertzen dira, eta idaz-lan orreri erantzunez, ederto agertu eban Latxaga jauna nor dan.

ERANTZUNA

Izlariari erantzuna izki oneik idazten dauzan Euskera-zaintza'ren lendakariak emon eutson eta itzaldian entzundako gai oneik azpimarratu ebazan: D'Abbadie'ren zaletasuna euskal-liburuak zerredaratzeko, orduko ikastaroak eta gaur egiten diranak dauken erantzun urria, D'Abbadie'k bere etxeko orman euskeraz irrarri ebala jakitea eta euskaldunen oiturea, antziñatik, gauza garrantzitsuak erderaz idazteko (gaur oitura au zuzendu naian diardugu), bere etxean iru izkuntza bardin erabiltea, gaur oster bi erabilten dira sarritan: Gurasoak euskeraz eta seme-alabak gazteleraz. Ori bai euskerea galtzeko bidea eta gazteak batua erabiltearen eragiña.

AMAIA

Mai-Buru zan EUSKERAZAINTZA'ren lendakariak ekintzaren amaia iragarri eban eta guztiok alkartu giñan anai-arteke bazkarian.

Ekintza ederra izan zan dana, baiña atsegingarri izan ez jakun jazokizun batek pizka bat urduritu ginduzan: Aurreko gabean kaletar batzuk aretora sartu eta su-amatatze-illeen lan-gailluak erabili ebezan eta aretoa zikindu. Zer egin?. Garbitu eta aurrera.

BAKIOKO ABESBATZA - 1996

Igazko amabi ilabeteetan zear Bakioko Abesbatze-ko zuzendaritza batzordeak beraren eginberrak bete izan dauz.

Sarritan zeuogana jo izan dogun arren, batzuetan barriaren jakitun zuek iminteko, gaienetan baina, garrantzitsuak begitandu jakuzan gaien ganean zeuen eritxiak jakiteko, oraingo onetan, ostera, joandako 1996. urtean zear jazotakoaren barri danok izan daigun, barriro zuenganatu gura gintzakez.

Askotariko uneak bizi izan badoguz be, geienak pozgarriak izan doguzala uste dogu. Eta zeozer aita-tutekotan, geuk danok Bakioko Abesbatzari biotz-biotzez emondako aldeko ekarpena nabarmenduko geunke.

1996. urtea ekintzetan ugaria izan da Bakioko Abesbatzarentzako. Gomutatu, osterantzean:

—Ageda Deuna eguna.

– Begoñako Amabostaldia: Deustoko Ikas-Ama
Berriz
Bakio.
Zeanuri.

—Ezkontzak: 05.27an eta 06.17an.

—Mungiako eleiz nagusian.

—Basaurin. Urregorritzko ezteguak.

—"Euskera bizirik" eguna (garagarrilean).

—Euskera eguna Bakion.

—Zezilia Deuna eguna.

—Gabonetako ekitaldia (goiko eleizan eta errian zear).

Sondikako abesbatzaren egunean be an izan gintzazan. Baita Bakioko jaietako asikeran be.

Santurtziko "Lagun Zaarrak" abesbatzak eskeinitako eresaldia eratu genduan, opariak alkarrerri trukatu. Au guzti au geuk eskeinitako abestaldiei jagoke-nez.

Abestaldiotan gure jardukerea naiko ona izan arren, berau ondu geinke, oraindikarren, ondu be.

Urtero lez, aurton be garagarrilaren irugarren astean, Udalagaz batera, Bakioko udako Aste Musikalaren eraketan artu dogu esku. Gure eritxian, aurten-goia bikaina baino bikainagoa izan da.

Eta, zelan ez, ekandu biurtu jakuzan alkarregaz egoteko eta astialdiko uneak aitatu bear: Zumetxagarako oiko igokerea; Lizarrara egindako osterea, egu-

raldi txarra egin baeuskun be; Iratxe ardandegira egindako ikustaldi interesgarria; Irantzuko monastegira egindakoa (zelango Aita Gurea, gero!); eta Urizarretan Zezilia Deunaren omenean egindako afari oparoa.

1997. URTERAKO AURRE-IKUSPENAK

Aurtengoan, atsedean urtea artu bearrean, berba emonda izan doguzan aginbear batzuei aurre egitea erabagi dogu, esate baterako:

1.—Begoñako Amabostaldian esku artutea. Ezin izango dogu esku artu, zozketa bidez atean lotu gara eta.

2.—gure zuzendariagaz bat etorritz, abesti geiago, partitura geiago ikastea erabagi dogu, gure erreperioriva zabaldu aal izan daigun.

3.—Udabarriko erestaldietan esku artu ordez, beste erestaldi batzuk eratutea erebahi dogu. Datorren epailaren 22an Mungiako Abesbatzagaz batera egingo dogun abestaldia, daborduko egon badago baiez-tuta onezkero egina). Beste abestaldiren bat eratutekotan gagoz, oraindikarren eguna zeaztu barik badago be.

4.—Aurtengo gure ekinaldirik garrantzitsuena Bakioko Musika-Astean izango da. Baleiteke berau garagarrilaren 20an izatea. Anton Larraurik sortutako "Bestelako Gudariak" eres-lanaren estreinaldia, atan be.

Au eratutea benetako eginbear gogorra da eta arduratsu ekin bear deutzogu, abesbatzaren ibilbidea eta, erriko ordezkari garan aldetik, Bakioren izena jokoan dagoz-eta.

5.—Bearbada, goian aitaturako eres-lanaren aurre-estrenaldia egitea. Eraturko litzaken aurretiko eresaldia batez, egin be.

6.—Tamalez, utsune bi geiago daukaguz.

Ez daukagu besterik esateko, abeskide guztiei, daukagun zeregin orreetan, gaur arte lez, zintzo jarraitu daien, euren biotzak berotutea baino. Aurrera egiteko gauza garala bete-bete gagoz eta. Eskerrik asko.

BAKIOKO ABESBATZAREN BATZORDEA

ITXAS-ALDEREN BARRIAK

ITURRIAN LAN KOREOGRAFIKO

Eusko Jaurlearitzak antolatutako Euskal Koreografo Barrien 1. Erakusketan artu dogu esku, "ITURRIAN" izeneko lanagaz aukeratuak izan gintzazalako. ITXAS-ALDE taldekoek aurkeztu genduan koreografia 10 minutukoa da eta erakusketa bera aprilean zear, iru asteburutan, aurkeztu izan dogu Gasteiz, Lasarte-Oria eta Bilbon.

Koreografia ezbardinak ikusi aal izan doguz, dantzaren munduan dagozan jokera ezbardinen erakusgarri. Geurea, euskal dantza tradizionalen oinarritutako koreografia da. Dantza eta kanta batzen dauz. XVIII-XIX mendeen artean kokatuz, iturrira ura bila joaten ziran emakumeen irudia adierazo gura izan dogu.

Amabi neskak dantzatzan dabe, ur suilak buru ganean garraiatuz. Luis Aranbururen musika zuzenean jo izan dogu. Orretarako, 3 soinulari, txistulari bat, atabal eta piano-jole bana, ITXAS-ALDEko 6 musikarik artu izan dabe esku.

Lan gogorra izan dogu. Epe laburrean jantziak eta suilak prestatu, musika egokitu eta dantza bera arik eta ondoen gauzatzeko, zapatu-domeketan ekinean eta ekinean ibili izan gara.

Baina, esku artu dogun guztiontzat esperantzia polita eta aberasgarria izan da eta eragozpen guztien ganetik, auxe esan geinke: urduritasun eta izerdi guztiek merezi izan dabelal.

Koreografia lan au, Bakion, udako jaialdian eskeintzeko asmoa dogu, taldearen 25. urteurrena ospatuteko eta urtero egiten dogun ekitaldiaren egitarauan, ain zuzen.

ITXAS-ALDEK 25 URTE AURTON!

Aurton ITXAS-ALDE taldea jaijo zala 25 urte bete dira. Urte-urren ori zeozelan ospatuteko taldeko dantzari, dantza irakasle eta musikari izandako guztiak batuteko amesa dogu. Gure asmoa da, dagonilaren 15ean, Andra Mari egunean, arratsaldeko dantzaldian, taldeko izandako guztien artean Bakioko erriari zeozer eskeindutea.

25 urteotan taldera asko ta asko etorri eta joan diranez, emetik, taldeko izandako guztiei dei beroa egin gura deusuegu, eratu doguzan ekintzetan esku artu daizuen. Erdutze, bada, eratu doguzan entsaioetara.

Asko izan zareen lez eta danori onen barri emoteko erarik eukiko ez dogun lez, beti baten bat aaztuta lotuten dala-ko, zeuek zeuetara zuen artean izandakoei gurera etorri eta ekintza orreetan gugaz bat egin daien, esateko eskatu gura geunskizue. Eskerrik asko!.

ITXAS-ALDE
Euskal Kultura Taldea

BIRIBILEAN EDO KORROAN EGITEN DIRAN EUSKAL DANTZAK

Euskal Errian egiten dan dantza erarik ugari eta aberatsena dogu au.

Mota bi dagoz. Bata, gizonezkoek baino egiten ez dabena eta eskuak alkarreri lotu barik, eta bestea, andragizonek batera egiten dabena. Azken oneek eskuak alkarreri emonaz edo emon barik egin leitekez, beti dantzaren arabera.

Leenengo erakoak, au da gizonezkoenak, batez be Iparaldeko iru lurraldeetan egiten dira eta baita Baztan inguruko erri batzuetan be. Orreetariko batzuk oneexek dira: Dantza-Jauziak eta Mutil Dantzak, esate baterako. Oneetan guztiotan dantzaren egitura berezitasuna, pausu bako- txak bere izena dauka eta dantzari artean pausuak egin baino leentxuago.

Bigarren erako batzuk, beste ainbaten artean, esate baterako, Soka-Dantza, Dantza-Luze, Trapatan, Alkate-Dantza, Giza-Dantza eta Larrain-Dantza dira.

Ikusten danez, dantza era orretako pausu eta koreografia franko dogu Euskal Erri osoan.

Unai Beitia (Artzakoa) ITXAS-ALDEko dantzaria



Sokaren aurrendaria eta azkendaria, Leitzako plazan, Ingurutxuan dantzatzan.

GARCIA MARQUEZ "NOBEL"-DUNA ETA EUSKALTZAINDIA

(KINTANA JAUNARI ERASPEN AUNDIZ ETA AIERKUNDERIK GABE)

(Idazki au Iruña'ko "Diario de Navarra"n argitaratu dot. Orregaitik, Naparroa'ko euskaraz idatzirik doa, baiñan bizkaitarrek ere errez adituko dabela iduritzen yat).

Oso idazle ona izen bear du Ameriketako Kolonbi'n jaiotako Garzia Markez eleberrigilleak. Ala diote beintzet.

Nik, nere iritzirik ezin ortaz eman aal izango dizut, bere eleberriak (nobelak) ez ditut irakurri-ta. Irakurri nai izengo ba'niku ere, ez nuke astirik izengo; dagidan lanerako, (Euskalerrri'ko lenen Elizaren edestia) apika betarik aurkitzen bait dut.

Denadela, "Nobel Saria" eman diote beintzet eta, eman diotenean zerbaitegatik emanen zioten, naiz, nere ustez, sari izentsu ori ematerakoan erabilli oi diren erak, bizkaitarrek esango luketen bezala, agian "oso antetsuak" ("muy acertados") izen ez.

Euskalerrrian arras maite izen dute Markez kolonbiarra punttako ezkertiarrek. Gaur ezkeru ez dute ain maite izango. Zakatekas izeneko uri mexikotarrean Gaztelerrrietako izkuntzalariek egin duten batzarrean, Euskaltzaindia aipatu gabe, agian Euskaltzaindiarik ba'den ere jakin gabe, parregarri utzi bait du Garzia Markez'ek gure ezkertiar ertzakoiek ain kuttuna duten Euskaltzaindia.

Gogor ekin dio ba izkuntza guztietako ortografiari. Batez ere, bera ere gazteleraduna izanik, gaztelerraren ortografi txoroari.

Kulturarentzat izugarrizko eragozpena omen da gaztelerraren ortografi ori, agoskatzen ez diren "H"z eta "V"z, eta doña bat berarentzat alperrikakoak diren bi edo iru izkiz beterik omen dagoelako. "K"ren doña agertzeko iru izki omen ditu "K", "C" eta "Q"), bat bakarra naikoa lukeelarik. Bi, berriz, "J"rena emateko, ("J" bera eta "G"). Ortografi alu ori ikasteko, urrea balio duen benbora galtzen omen dute gure gazteek, azkenean, gañera, jikasi gabe gelditze-ko!.

Bi gizonen erantzun diote Euskalerrrian Kolonbi'ko eleberrigilleari: Kintana'k eta Olazar'ek.

Kintana'k, bera Euskaltzaindikoa dela esanez, (eta, orrela, Euskaltzaindiaren izenean ari delako itxura emanik) arrazoia ez dan arrazoi-antzeko txaxukeri bat erabilliz. Berak dionez, au omen da ba Markez'ek eskatu duena: (Kintana'ren itz berberak emanen dizkizut) "una disparidad de sistemas para que cada cual escriba de acuerdo con su pronunciación particular, es decir, con sus yeismos, seseos, lleismos, laísmos y contracciones".

Kintana'ren izketa orri "appellatio ad absurdum" esaten zaio erretorikan, eta norbaitek, egiazko arrazoirik ez duenean, etsaia parregarri utziz erabilli oi duen arras usai zikiñeko "arrazoi" ustela besterik ez da. Markez jaunak ez bait du deus orrelakorik esan.

Sendagilleak berdura jan bear duzula esaten dizunean, ez dizu kolere berdea duen guzia jan bear duzunik esaten. Markez'ek ere ez du Kintana'k leporatu nai dion alukeririk esan. Auxe besterik ez du esan: alperrikako izki guztiak lenbaitlen kandu bear direla ortografitik. Gauza zintzoagorik eta zientzi guztien aldetik egokiagorik ¿esan al diteke?.

Orregaitik, zorionak emanez erantzun dio Martin Olazar Euskerazaintzako Lendakariak. Eta, Euskaltzaindiari, arren, lengo Euskaltzaindi jator arengandik artu zuen ortografira biurtzeko eskatu dio, ori delako euskerari eta mota guztietako ikasleei egin dezaiekeen mesederik, jaundienal.

Ori nik baiño obeki munduan iñork ez daki. Izen aundiko istituto batean irakasle izen naiz nere bizi guatian. Egiñ aal guztiak egin ditut neska ta mutil gazteei, adibidez "H" a non jarri, erakusteko.

Alperrik! !

Latiegi'tar Bixente

OROITZAK

Iribarrea osasuntsua da, zerbait irribarrez gomutzatze-rakoan. Atzera begiratu ezkerro, ez ain urrun, ia begi-aurrean dozuzala, joan diran jazoerak jatortzuz burura. Gomutagarriak izaten dira batzutan, irribarrea sortzen dabenak batezbe.

Oztera, zelan edo alango mingostasuna emoten dabe beste batzuk, adibidez, il izan diran notin ezagunak gogoratzea, zeugaz ain ur eta atsegiñez ainbestetan egonak; berba baten esanda, gogoangarri eta maite izanak.

Orixe bera gertatu jat lengo egunean "Helsinki Aita Santi gogoratzen" idazkia irakurri dodanean "Euskera-zaintza" aldizkarian idatzita, Xabier Peña'ren irudia burura ekarri daustalako.

Badakit Aita Santi'ren omenaldiari buruz idatzita dago-la baiña egillearen kontakizunean (Kisti Kaliosalo da kasu onetan egillea), biok, Aita Santi eta Peña'tar Xabierrek damotse bizia lanari, baita Enbeita'tarren sendia agiri da idazlanean bertan, gaia bizkortasunez eta zintzo azalduta.

Orain arte Kisti'ren idazkirik irakurri ez dodan arren, jakin banekian bere bizitzaren barririk; au da, guri, ikasle-ai, klasera giñoiazala, iñoiztxo Xabierrek berak aren esku-titzen zatiren bat irakurri eta azalpenen bat egiten euskula-ko. Onelako gomutak irribarrea sortzen dauste batzutan, baita kasu onetan lez, naigabea. Naigabe edo leen esan dodan bezela, mingotza; norberaren adiskidearen, maixua-ren, betiko joan danaren gogorapena burura dakartzulako, au da Xabier zure irakasle eta adiskideak berak egindako esana edo azalpen ber-gogoratzea dalako.

Orain, une onetan, urteak igarota (bere idazkien bitar-tez) Kisti'ren barri jakiteak eroan nau auxe idaztera edo aitatzera. Ain zuzen be, gomutak millaka datozelako gogo-ra, batez be norberak ekiana idatzita ikusten dauanean; au da, Aita Santi'ren idazkia eta Kisti'rena, guri ikasleai Xabier Peña'k kontatzen euskunagaz bat datozala.

Adibidez, Xabierrek ikasturtearen amaieretan, bagi-lllean, Euskalerrri guztian zear txango baten eroaten gindu-zan bazterrak arakatzen, au da Naparra, Iparralde eta bes-te Euskal inguruak zearkatzen, mendi eta itxasalde, Aita Santi'k diñoan antzera.

Otuten jat beraz, nigaz batera Xabier Peña'ren klasee-tan egozan beste ikasleak au irakurritakoan, obeto esanda "Euskerazaintza" aldizkarian idatzitako idazlanak iraku-riaz konturatuko dirala (eta gogoratu) gai onetaz nik neuk egin dodan bezela.

Kisti'k, bere idazkian bere nortasuna asierazten dausku, erakutsi onak emon, Aita Santi'ren esanetan "atzerritar eta euskaldun barri danaren aburu eta irakatsi zorrotzak". Kis-ti'k diñoanez ez dago orain beste biderik, egiteko dagozan lanak eroaten jarraitu baiño, "barruko bearrak bultzatuta adierazten saiatu bearra" baiño.

LARRONDO

BAKIOKO UDALEAN BIZKAIERIA ERABILTEKO ESKARIA

Bada sasoia Udaleko euskerearen erabilpenean bizkaieria txertatu, sendotu eta bultzatuteko. Bai agoz, bai ida-tziz. Bai barrurako, bai kanporako artuemonetan.

Au guztiau Udalak berak erabagi bear dau. Erabagi ezeze, arautu eta zeaztu be. Bein erabagi politiko ori artuta, Udaleko beargin zein zinegotzi guztiek bete bearko leukeen ebatzia izango litzeke ori.

Erabagia, baina, erriak autatu dauazan ordezkari politikoek artu bear dabe, artu be. Bederatziok bederatziotaral.

Egia esan, onelango erabagirik udal gitxik artu dau, Bermeokoak izan ezik. Bakiok aurrerantzako oinkada ori egiteari bear-bearrezko deritxot Bakion euskerearen normalkuntzeari begira.

Bear be, bizkaierearen aldeko lurgunea bear dogu Euskalerrriko Sartalde onetan. Aukerea geurea da. Bermeota-rrakaz bat eginik, inguruko errietara zabaldu geinken asmo polita da izan.

Aaztu barik, erriotan dagoan bizkaieradun errealitate soziolinguitikoa.

Erriok, esate baterako: Mundaka, Busturia, Foru, Mungia, Meñaka, Jatabe, Lemoiz, Armintza, Gatika, Laukiz, Gamiz-Fika, Fruiz, Arrieta, Morga, Errigoiti, Muxika, Gernika,... Udalotan bizkaierearen aldeko aurre-baldintza egoki-egokiak dagoz egon. Atara daiegun onurea, bal.

Iniaki MARTIARTU
1997ko orrilean

ANTXINAKO KONTAKIZUNAK

Lorik egin ezin daberen umeak Murelagako San Juan degolladorearen ermitara eroaten dabez.

Bein Jerusalemen gizon batek itaun au egin eieban: "Jesus nun ete dago?" "Elorria dagoan atean aurkituko dozu", erantzun eutsoen. Ordutik, ai dator elorri-adar Donianez badeindatua atarian ipintea.

* * *

Bi iñarra-saltzalle ebiltzen kalean. Batak, bost errealean saltzen ebazan; besteak iruan.

Arek bai diñotso oni:

—Zu, zatoz ona, konpianzara itz-egin bear dogu-ta.

Ezin dot asmau zelan saldu daikezuzan eskoba orreik iru errealean.

—Nik, gayak ostu egiten dodaz, eta egitea besterik etxat kostatzen.

—Zelan saldu daikezuz zuk, iru errealean?

—Nik, egindakoak ostuten dodazalako! (Abeletxe)

* * *

Pello-Koxe, Koxe-Pellipekana yoan zan kontseju billa. Onek:

—Zer yazoten yak ba?

—Ezkontzeko aukera bi yuadaz. Bata, alargun aberatsetarikoak dok, baña etxoat maite. Bestea barriz, oso txiroa, baña maite-maite yoat. Zeñegaz ezkondu?

—Iño! Alakoetan biotzaren deiarri erantzun bear izaten yakok mutil! Ezkondu adi txiroagaz!

—Eskerrikasko. Orixe egingo yoat. Deituko dauat garaiz ezteguna.

—Aizak; aide baño lenago esaistak: ¿Nun bizi dok alargun ori?

* * *

Bazan emen Bilbon jaun bat Larrinaga abizenekoa. Baña bere deitura ori Larrínaga zala esaten eban, ta ez Larrinaga, leun, guk esaten dogun lez. Erdal gramatikari dagokionez "esdrújula" guztiak "asentua" eroan bear danielako-edo.

Zumarraga leun, eztala esan bear, Zumárraga baño. Gorrotxategi ez dala, Gorrotxategi baño. Luzarraga, Zumalakarregi ta abar.

Jaun orrek denda bat eukon Bidebarrieta kalean. Kapela dendea, "sombrerería".

Ta auxe gertau zan egun batez:

Larrinaga jaun orren maniarik ez ekian gizon bat, sartu zan denda orretan kapela barri bat eroste-ko asmoz, ta nagusiari itaunduten dautso:

—Es ésta la sombrería de Larrínaga?

—No señor. ¡Esta es la sombrería de Larrínaga!

—Entonces... ¡deme Vd. un sóbrero!

* * *

Lekeitio'n yazorikoa.

Erria osasuntsua ete zan yakin nairik, turista aleman batek itaunduten dautso arrantzaleari:

—Sarri ilten da yendea erri onetan?

—Ez, yauna. Bein bakarrik.

* * *

Bultzia, trena, badoa gau-illunean ¡ fi-fi! aurrera ta aurrera.

Patxadaz aulki bigunetan exerita doaz bidaztiak erdi lo. Zulatzallea azaldu danean, danak atara daroez euren txartelak, baña...

—Zure billetea, irugarren mallakoa da— diñotso zulatzalleak, bati-

—Badakit.

—Orduan... zelan zoaz emen?

—"¡Priimeran!".

* * *

Illuntzean betiko lez ardautxoa edatera yoan

zanean, etzala ondo aurkitzen, esan eutsen Txanton'ek bere lagunei.

—Zer yazoten yak ba?— galdetu eutson-.

—Etxakiat. Eztautzu etzer esan gura izan, baña zortzi egun gutxienez yaroadaz gogo-txarrakin, da gaur, iñoiz baña makalago aurkitzen nok.

—Ba... neuk emongo dauat tarjeta bat, Bilboko neure adiskide osagille on batentzako, ta urrengorako laga barik yoan adi biar; orrek gauzok ainbat azkarren erabagitea oba izaten dok.

Urrengo illuntzean, Bilboko osterea egin ondoren, an azaldu zan Txanton tertuliara.

—Da? zer esan dauk, ba, osagilleak?— galdetu eutson batek-.

—Gauzonik ez, Hidropesia daukadala.

—Ja, ja, ja! Hidropesia ik? Ik ardau-presia daukak!.

* * *

Landolako nagusiak marroyari:

—Koxe; denporatxoa daroazu etxe onetan eta ondiño eztozu ikasi zeure lana bear dan lez egiten. Neure toki onetan, bape begirapenik bage sartzen eta urteten zara. Beraz, ordua dozu ikasteko. Ba gara?.

—Bau yauna.

—Tiira ba! orain zoaz "estankura" ta ekarri egidazu ke-belarra, tabakua, baña bidean neska txatxalei, emakume ganorabakoei begiratu barik, astirik galdu barik.

Urten zan morroya ateari drandaga bat emonaz.

Itxuli zan, ta baimenik eskatu barik sartu zan nagusiaren lan-gelan.

—(Mai-ganean utziaz) Or daukazuz ke-belarra ta bostekoaren "bueltak" Geyagoko gabe ba yoyan urtetera.

—Koxe! Zatoz ona! Alperrik da zuri oarrak egitea! Len be esan dautzut zerbait eta... dana alperrik! zeure leloan jarraitzen dozu. Asto bat lez sartu ta urteten zara! Neuk irakatsiko dautsut zuri! Bai; okerak zuzendu egin bear dira, ta ortarako sayo bat egingo dogu.

—Zelango sayoa?

—Ara: Une baterako truk egingo dogu malla. Uste egizu ni morroya nazala, ta zu, nagusia. Yesarri zu nere aulkian; ni aterako naz; ta sartuko nazeanean, ke-belar billa bialduko nozu.

Yesarri zan morroya aulki ederrean. Atera zan nagusia. Bereala atean kaxk-kaxk! entzun zan.

Pitintxu bat goxo-goxo irikirik galdetu nagusiak:

—Sartu al deiteke, yauna?

—Aurrera!

—(Mukur bat egiñaz) Zer nai leuke nagusi yau-nak?

—(Bost ogerlekokua emonaz) Zoaz "estankura" ta ekarri egidazu, arren, ke-belarra.

—Ondo da. Ezer geyago, jauna?

—Bai. "Ume ederrik ikusten badozu kalean, itz-erditxo bat ari esau gabe, ez pasatu parean".

Ordagoa yaso eban baña ixilik yoan zan nagusia.

Andik lasterrera: Kaxk-kaxk! atean.

—Sartu al daiteke, yauna?

—Aurrera!

—(Mai-ganean utziaz) Or dozuz ke-belarra ta bostekoaren "bueltak", yauna.

—Eskarrikasko. Ederto bete dozu agindua, ta ordañez, jaso egizuz zeuretzat "buelta" orreik.

JOSEBA ARREGI



ARGIZADI

1. Itxas-ertzeko muñotxo batean mendebalera begira arlosa txukun polita lauburu borobilla: "Emen datza: erdi-miñak erailda, semetxoa altzoan duela, ARGIZADI BELTXARANA. Abenduak 24, Urtea 1560"

Kresala zero-urdiñakin mugatzen dan lekuan, sartzen da ur-azpian Eguzkia; baña, ez bere aizkeneko argi-izpiakin musutxo bat bialtzeke, muño gaiñeko ARGIZADI BELTXARANA ri. Badoa neskatoren senitartea gurtzera.
2. —Amatxo, bai pozik nagoela; gure landetara laister agertuko dira euskaldunak. Amasei urte bete ditut zaz-pigarren illargi betean, eta, onezkero utziko didazu aiekin egiten degun azokara urbiltzen... Ez al da orrela, amatxo?

—Gaztetxoa zera oraindik, Argizadi, gizonen artean ibiltzeko.

—Zu Axari Beltzarekin alkartu ziñanean, ez ziñan ni baño askoz zaarrago... Eta, zergatik ipiñi zidazun Argizadi izen au?

—Illargi betean jaio ziñalako. Ur gardenez betetako ontzi orrek argia dario bere erraietatik. Berari eskeiñita zaude...

—Amasei aldiz ikusi ditut elurte ikaragarriak, amasei aldiz larrak lorez edertzen... Utzi eidazu, ama, aundia naiz-eta.

—Axari Beltzaren baimena bearke degu.

—Emango du; neuk eskatuko diot, amatxo.

—Neuk aurretik egingo dizkiot biezpairu itz.
3. Negu osoan kastoreak arrapatzeari ekin ziotzen. Euskaldunen agurra, zorioneko agurtzea izaten zan, ez bait ziran lurraren jabe egiten, indioek baso-barrura boteaz, zenbait erbestetarrek egiten zutenen antzera... Udaberrian agertzen ziran eta udazkenean joan.

—Axari Beltza, euskaldunak datoztenerako kastore-larruak gertu daude.

—Zenbat dira danetara?

—Berreun ete larogeita bost. Zer eskatu bear diegu ordañetan?

—Lenengo-eta-bat, aizkorak eta aiztoak. Gureak oraindik arrizkoak dira eta eurenak gogorrak, apurtu eziñak eta dizdira egiten diote eguzkiari...

—Emakumeak ere gogoan izan bearke...

—Ekarriko diturte txintxilikario eta izpilluak ere.
4. Baita arto-ogi ederrak.

—Eta edari goxo bizigarria?

—Sagardoa? Bai, orixe.

Egunero agertzen dira ondartzara euskaldunen berri ote dan. Mutiko bat eduki oi dute arbola baten goiko muturrean itxasoari begira...

—Ara, badator oial txuriz jantzitako ontzi aundia!

Asieran ez ziran batere fiatzen eta oianean izkututzen ziran, ontzia ikusi orduko; orain, berriz, ondartzara datoz guztiak kastore-larruak eskuetan dituztela.

Agurka eta garraxika asi dira legorretik; agurra eta garraxia erantzuna ontzi-barrutik.
5. Kapitanak barruan:

—Udetara bost txalupok. Banatu galtzairuzko aizkora eta aiztoak, txintxilikario eta izpillu, arto-opil eta sagardo...

Joan-etorriak bein da berriz egin dituzte. Azkenik guztiak dira legorrean azoka bereizi aretan parte artze-ko. Danon festa da eta danon poza. Eguzkia bera ere alai agertzen da. Barruan, zaintzaillea bakarrik; Andres gizarajoa; bera da aizken etorri dana Terranobara'ko....
6. Azoka asi da: aizkorak, aiztoak, txintxilikarioak, arto-opillak, sagardoa aide batera; kastore-larruak bestera. Larruok jaso dituzte ontzi-barrura; arto-opillak eta sagardoa guztien aoetan daude. Aizkenarako naiko motelduta daude indioek. Suak piztu dituzte eta prest daude gaueko danbor-soiñu eta dantzarako. Kapitanak barruratzeko agindua eman du; biar, goizetik, asi bear dute-ta lanean.
7. Goizean goiz, egunsentirako, Txomin, ogei urteko gazte lerdena, kapitanaren semea, 18 gizonekin legorretatu da. Aizkolariena da lenengo lana (indioek, aizkorak bai, baña lear eginda daude; orrek ez du ajolik, Euskalerrian edozein da aizkolari): embor sail bat bota dute; adarrak kendu eta eurokin moillak egin. Ondoren, txabolak jaso; bai gizasemeentzat, baita barrillentzat ere. Barril utsak, udez beteak, gero guztiak balekoipez osatzeko.

Egur eta tella-lana bukatzean, bi labe eraiki bale-koipeak urtutzeko. Aste betean bukatuko dituzte aurretik egin bear diran osakizunak. Bitarte onetan, ontzia, barrukoekin, abiatu da bale-arrantzara.

Ez da naikoa balea arraptzea; bale ori koipe biurtu bear Euskalerrira eraman aal izateko. Orregaitik bi taldeetan eratuta daude Terranoba'ra etorri diranak: legorrean batzuek eta geienak itxasoan...

8.

Argizadi lenengo gabean maite-mindu zan Txomin, kapitanaren semearekin. Lanean ekin zutenean, beti bezela, indio talde bat gelditu zan euskaldunen lagungarri: Axari Beltzaren taldea. Nun Txomin, an Argiadi. Sukalderitzan zebillen, Txomiñ'en inguruan eta Txomiñ'en serbitzari... Neskato begi-beltz beltzaran ura gogoko zitzaion kapitanaren semeari...

Aizkenerako, illargi betea ospatzen ari zirala, bai indioek eta baita euskaldunek ere (usuario zaar bateri jarraituz), oianeko belar biguña etzan -gai, ostro berri arteko zirrikituetatik, illargiaren erraiño zuriak argitu zioten neskatxari begiak...

9.

Baleak ugari San Lorenzo ibaiaren kolko zabalean; lana etenik gabe. Barrillak zijoazen koipez betetzen... Baita Argizadi'ren sabela ere. Amak kontu artu zion:

- Neska, zertan zabilta?
- Txomiñ'ekin zoratuta nabil, ama.
- Eta, bera?
- Bera ere bai; geroz eta sutsuago.
- Aitari esan bearko. Zenbagarren illebetean zoaz?
- Bosgarrenean. Antzarrak ego-aldera egan asita daude eta, zer egin bear det nik, neguko elurretan, ume-txo batekin eta senarraren laguntzarik gabe?

- Axari Beltzarekin itz egingo det eta Txomiñ'ekin ere bai: ezin deikuzuke emen gurekin gelditu aurdun zeralarik.

- Eta, zer egin bear det nik...?

Argizadi'ren gurasoek, itz-erdizka eta kiñuz, neskatoren sabela erakutziz, egi guztia adierazi zioten. Txomiñ'ek aitari eta onek, kapitanaren eskubidez, biak alkartu zitun eta ezkondu. Euskalerrira begiratzeko eguna eldu zanean, barruan txoko bat aukeratu zioten Argi alboan.

Txomiñ'en ama arri-eta-zur gelditu zan, erditzeko gertu zegoen neskatxa beltzaran ura ikusi zuanean...

10.

Egunak bete ziranean sorzaiñari deitu zioten, gertu egoteko. Erdi-miñak azaldu ziranean, sorzaiñak egin zitun bere prestakizunak; baña, ez alperrik: aurra atzekoz aurrera zetorren eta burua bearrean, eskubiko oiña

agertu zan eta ezkerrekoak traba egiten zion irteteko.

- Barberoari ots egin bearko diozute; bestela, ez degu gauza onik emen aterako.

- Ain gaizki al dator?

- Okerrago ezin.

Barberoa agertu zan bere tresneri osoakin eta sabelpetik egin zion ebagi sakona... Alperrik. Sakonago eta luzeago... Alperrik berriro ere. Odol-ixurtea galditu ezin... Zer egin?

- Sabela ebagi goitik beera eta aurra atera (ekin zion aldamenetik Txomiñ'en amak).

Zilla lotu zitzaion eztarran eta aurra itota zegoen. Odolez barberoa, odolez ingurukoak: abere-iltokia zirudien gelatxo arek. Orra Argizadi'ren azkena; orra Txomiñ'en biotza erdibi... Bururik jasoko ote du gazte onek?.

11.

Bizitza aurrera doa eta ordurik ez da gelditzen. Gabon tristeak; baña, uste baiño lenen, saatsa loratan. Ontzia Terranoba'ra bidean ipintzek, asiak dira antolaketak...

Ondartzan kokatuta zeuden senitarteko guztiak. Oial zuriak agertu ziranean, ixilik barruan eta exilik legorrean... Malko negarrak eta zotiñak... Gurasoek Txomiñ'eri Mikiko eskeiñi zioten, Argizadi'ren aizpatxoa... Udarako laguntzaille gelditu ziran... Antzarrak ego-alderuntz berriro... Berandu orduko, ontzia istipatu bear zan, Atlantik itxasoa batetik bestera igartzeko. Txaboletan 800 barril, koipe zeuden pillatuta.

Istupatzeko, ontzi-barrua ustu zuten (lantza, ezpata, kañoi aiñako guztiak) arintzeko, gero maria-goran ondartzan aal zan urrutiren sartzeko. Maria-beeran giza-seme guztiak, gillatik asita, urpe-aldeko zatiak istupatu eta pikez igurtzi. Ondorengo maria-beeran, kareleraiño-ko besteak.

Istupatzea bukatuta, festatxo bat egin ondoren, lotara gurputzak leaf eginda. Goizeko maria-goran uretara irten eta ondartzakoak barruratu.

12.

Egun-sentia izakia margotzen asi zanean, lo zeuden begiak esnatu ziran; baña, indioen aztarnik ez zegoen inguruan. Bi txalopa falta ziran, beuren arpoi, sangradera eta estatxekin; lantza eta ezpata pilloa, makallautako aparixuak eta ogei koipe-barrillak.

- Zer da au? Deitu Txomin'eri (kapitanak)

- Jauna, Txomiñ'ik ez dago emen.

Arrinda'tar Anes

BAKIOKO EUSKEREAA (II)

3.— Seinalapena: bide— erakusleak eta bestelango iragarki edo argibide publiko iraunkorrak.

Seinalapena arlo egonkorra da. Bein egin ezker, iminita edo kokatuta dagoan tokian denporaz luzaroan iraun bear dau eta.

Seinalapena be araupetu bear dan arloa dogu. Araupetze ori erri mailan egin leiteke. Erdereak beteten dauazan eginkizunak, guztiak, euskereak bete aal izan daiazan. Alan da ze, erriak berak, Udalak, erriari berari ondoen jatorikon eran egin leike seinalapena. Bearrezkoa da, orretarako bada, plangintza zeatza sortutea. Plangintza ori toponimian oinarritu bear dogu. Seinalapen orrek Bakioko euskerea eta nortasuna danon begien aurean itzi bear dauz eta.

Seinalapenaren aldaketea edota euskaldundutea urratsik urrats eta arlorik arlo egin bear da. Udalak eratu bear dauan Birreuskalduntze eta Euskera Normal-kuntza Plangintzearen barruan kokatu bear dogu. Tokian tokiko lekuizenei eutsiz, bide-erakusleak erabarrituteari ekin bear deutso Udalak. Lan ori ikargarria da. Ikerketa lan sakona eta batuketa zabala egin bear dira. Ikerketa-azterketa orretan izenen ganeko erakundeen (EUSKALTZAINDIA, ETNIKER-LABAYRU IKAS-TEGIA, BIZKAIKO ALDUNDIA...) egokitasuna eta onespena lortutea ez litzakigu txarto etorriko. Auzo, erreka, baso, etxe, solo, iturri, bide, mailadi, mendi, mune, atx, troka, eta abar bakotxaren jatorrizko izena batu, egokitu eta agirian iminteko. Antxinako izenak, lekuizenak, birreskuratu eta birbiztu bear doguz (SAN JUAN ----> GAZTELUGATXE). Bakioko seinalapena euskeratutea oso lan baliagarria izan leiteke, euskerearen normalkuntzeari begira, batez be.

Errepide, kale ete bazterretan dagozan erakusleak euskeraz idatzi bear dira. Euskerearen normalkuntzarako au bear-bearrezkoa bada, lan aundia dago egingai, oraindinokarren, arlo onetan. Arlo onetan asmoa dana egia biurtu bear dogu. Orretarako, baliagarri doguzan urrengo tresnak edo ekintzak indarrean iminiz, arean da:

- sistematikoak
- koordinatuak
- denporan iraunkorrak
- integralak
- zabalpenean iraunkorrak

– erispide eta ekintza bateratsuak

Zalantza barik, onelango egitasmoren bat aurrera eroateko diru-iturria ziurtatu bear da. Orretarako, Udalak, egitasmu au burutu artean iraungo dauan urte/epe guztietako aurrekontuetan arlo berau be gogotan artu bear dau, apurka-apurka Bakioko begien aurreko ingurune linguistikoa birreskuratu aal izan daigun.

3.1.— Seinalapena egiteko erispide orokorrak

Edozein bear egiterakoan eta bear ori ganoraz aurre-ara atara gura badogu, oinarrizko erispideak jarri bear izaten doguz. Erispideok egingo danaren abiapuntua sortuten dabe eta aorrexegaitik dira ain garrantzitsuak: zelan asi, alan amaitu. Ez dogu aaztu bear, erispideok gure egunerokotasunean ikusiko doguna zeazten eta errotuten lagunduko deuskuena.

Gure kale-bazterretan euskereari leku duina emon bear jako, egundo be galdu bear ez ebana, galdu be. Aurrean esan dogun lez, seinalapenaren erabilera turistiko-folklorikoa ekidin edota ezabatu bear da, gure erriaren nortasuna aldeztuteko. Euskereari leku duina eskeini bear jako, erriko gomutapen istorikoa atzera irabazten dogula. Erdaldundutako bazterrak eta arloak guretzeko barriro irabazi.

Orokorrean, seinalapenerako euskal ordainak aukeratuteko erispideak erabiltea izango da bidea. Askotan, mezuak itzuli eta gogaiak adierazoko doguz aren dibez. Orretarako:

—Alik eta testu laburren edo gitxien erabilli eta alik eta ulerterrezen egingo doguz, mezu artzailearen bat— bateko ulermena larregi beartu barik. Denpora gitxi izaten da bideetako mezuak irakurteko eta. Batetik, esaldi luzeak irakurteko astirik izan ez eta, bestetik, idazteko be leku naikorik ez, neurriak dirala eta. Mezua, baina, egokiro adierazo bear dogu.

—Bide-erakuslearen barruan mezua testu eta irudien artean banandu bear da.

—Berba alkartuen idazkeran marrarik ez erabili, onetarako aukerea dagoanean izan ezik, jakina.

—Toponimia gai eta lekuizenen -a artikukua -a itsatsia jagon bear dira (KARABI — KARABIA, ENPARANTZA — ENPARANTZEA).

– Bide-erakusleak era txukunean eratu eta egingo dira. Seinalapen egokia izan daigun, bide-erakusleen kokapen egokia be aukeratu bear dogu, ikusteko eran, mezua eldu eragin daigun. Neurri eta izki moetearen aldetik, egokienak artuko dira, era normalduak (Bilboko kaleetan dagozan iragarkiak lakoak edo ta oraintsu Bakioko kale nagusian iminitakoak lakoak). Beraz, aretan zeatz-meatz argituko dana:

- a- euskerea bakarrik edo beroneri leentasuna
- b- erakusle, izki eta irudien neurriak
- d- grafia moeta edo tankerea (helvetia,...)
- e- margoak, adierazpen baktxari berea
- f- berben arteko urrenkerea
- g- irudi eta ezaugarriak

3.2.– Izkuntza politikeari jagokozan seinalapen erispideak

Garrantzi aundia dauka Bakioko bide-bazterretan barriztatu edo barri iminiko diran erakusle guztiak euskeraz bakarrik jarteak. Orren inguruan egingo danak Bakioko Euskerearen Normalkuntza Egitasmoari lagunduko deutso. Errian bearrezkoa dan giro euskaldun egokia sortu aal izan daigun. Erritarrak, euren begiez, izkuntza normalkuntzearen garrantziaz sentiberatu eta jaubetu daitezana. Bakio euskal giza-taldea dana agirian itzi bear dogu, azken baten, izkuntza idatziaren bidez bere nortasuna sendotutea ekarriko dau orrek eta. Euskerearen oiko eremuak sendotu eta ingurunea euskaldundutea lortu aal izateko. Bakio euskal izkuntza giza-taldea, bakiotar eta Bakioko guztiei zabaldua, osotuz joan aal izateko. Izan be, izkuntza giza-taldea osotuteko baldintza on-onak daukaguz Bakion.

Izkuntza politikearen elburua euskerea, Bakioko jatorrizko eta bere-berea dan izkuntzea, bizibarrituteko aaleginak egokiro bideratutea dogu. Beraz:

1.– Seinalapen osoa euskeraz bakarrik. Kale, bide zein bestelango tokietan. Bide-erakusle, iragarki zein adierazpen guzti-guztiak. Erdera utsezko eta euskereagazko bazterkeriak sortuten dauazana ezabatu eta kendu. Aldaketak eragin (INFORMACION Y TURISMO – TURISMO BULEGOA, EN TODA LA TRAVESIA – IBILBIDE OSOAN...).

2.– Seinalapen txarra edo okerra edo ulergatxa kendu, zuzendu, errezagotu eta aldatu. Era txukunean egin bear da, asikera-asikeratik ondo eta akats barik, geroago aldatuteak dirua xaututea, ondatutea, baino ez dakar eta.

Epe laburrean egitekoa da. Erabilten dan euskerearen ontasuna edo kalitatea bermatu bearra dago. (UDALA – UDALETXEA, BAQUIO – BAKIO,...).

3.– Toldan tokiko berbakerea jagon bear dau senalapenak. Bakioko euskereari jagokan izkuntza eredua bultzatu bearra dago, izkuntza biziaren lekuko da eta, azken baten. Bizitasun eta balio etnolinguistiko orreetan oinarrituta, Bakiok daukan altxorrik aundiena dan ezkerro, leentasuna emon bear jake betiko berbakera eta adierazpen onei. Beroneek gordeteko asmoaz. Orreek euron transkripzino literarioan argitara ekarriak, jakina (ITXAS – EITZAGA, JEURISARRE – JAUREGIZARRA, BESONDA – BESONDONA).

4.– Azken gizaldiotako izkuntza kolonizazinoa dala eta, erriko lekuizen asko be asko eraldatu deuskuez, bai agozko erabileran, bai idatzizko erabileran.

Seinalapenean toponimia garrantzi-garrantzitsua da.

Arrotzak eta gureak ez diran lekuizenok, gure kultura, izkuntza eta nortasunaren aurka jarri edota erabiliak eta guri destaina egiteko baino balio ez dabenak, errotik ezabatu eta baztertu bear doguz (EL CALERO – KARABIA, ALTO DE BAKIO – LANDABARRENA,...). Edota euskerazko izenak izan arren, leku orreetako benetako lekuizenak ostendu ta izan ez eta oker erabiliak diranak be zuzendu bear doguz (ENEPERI – URIZARRETA). Seinalapenak orreek guzti orreek baztertuta, jatorrizkoak eta gure-gureak diranak, antxinakoak eta betikoak diranak birreskuratu eta bultzatu bear deuskuz, idatziz zein agoz erabili daiguzan.

5.– Euskerazko seinalapena era sakon, zeatz eta jakintsuan egin bear da. Argibideak emoteko erabili bear dogu, euron kokapen eta izenen barri emoteko, ain zuzen be. Au da, Bakioko bideak, errekek, kaleak, mendiak, tokiak, eleizak, baseleizak, etxeak, errotak, etorbidea, iturriak, atxak, dorretxeak, ibilbideak, zubiak, baserriak, basoak, aretzea, auzoak, inguruneak, arrobiak, ikuspegiak, aparkalekuak,... gauza baktxa zer dan adierazoteko deiturak eta beroneekaz batera doan toponimia aundia zein txikia izendatu, erakutsi eta adierazoteko erabiliko dogu (OJAORTA ERREKEA, JATA MENDIA, URKIZAU ALDEA...).

6.– Aurrezkoagaz lotuta, baserri, etxe-zaar, erotak, olak, dorretxe eta erriko beste eraikuntza aitagarrien jaubeek, areen ormei datxekiezala, euron izendun diran iragarkiak edo errotuluak ipini daiezan Udalak kanpaina bereziak eratuko dauz eta orretarako beren-beregi aurre-

ALBISTEAK

kontu berezia edota diru-laguntzak aurreikusi bearco dauz.

7.– Administrazino eta zerbitzu publikoen eraikuntzetan be kanpoko sainalapena euskera utsean egingo da (UDALETXEA, BUS-GELTOKIA, OSASUNDEGIA, GASOLINDEGIA, ERRIKO IKASTETXEA, POSTA-ETXEA, ZAARREN EGOITZEA, KIROLDEGIA, PROBALEKUA, ELEIZEA...). Euron ornei eraikuntzearen izena, deitura eta ezaugarria, edonork ikusteko eran, datxekiezala.

8.– Norabideak erakusteko errepideetan, kaleetan edota bidekurutzetan, jarrita egon bear daben bide-erakusleetan erbesteko errien izenak euskeraz eta euskerazko idazkeran agertuko dira beti (ARMINTZA, MUNGIA,...). Egundo be ez, lekuizenak bietara emon, euskeraz bakarrik (BILBO/BILBAO – BILBO, MUNGIA/MUNGUTA – MUNGIA,...). Euskerearen aurkako dan elebitasun diglosikoari gatxeritxi bear deustogu, gure izkuntzearen aurkako beti izango dalako. Ez dau gurea jagoteko asmorik edota elbururik egundo be izan eta. Trafiko seinalapen osoa, beraz, euskeraz bakarrik adierazo bear da. Trafikoaz arduratuten da EUSKO JAURLARITZAKO sailaren onespina, arlo teknikoari jagokonez, lortu bearco litzake (EN TODA LA TRAVESIA – IBILBIDE OSOAN, RECUERDE – GOGOAN IZAN). Gogotan artutekoak dira, barriro:

- jatortasuna
- ulertzerretasuna
- zuzentasuna .
- esangura argia
- segurantzea
- euskera eredu egokia
- denporan iraunkortasuna

14.– Eginbearreko seinalapenak trafiko seinalapena ezeze, mikroseinalapena be artu bear dau: hotelak, dendak, tabernak, gasolindegia, administrazinoa, bestelango eraikin, zerbitzu eta toki publikoak, monumentuak,... Euron barruko zein kanpoko seinalapena edo errotulaketea artu bear dau gogotan. Eremu onetan egingo dan azterketeak arlo tekniko guztiak gogotan euki bear dauz (izkien neurriak, margoak, izkuntza arloa,...). Udalak, ekimen pribatuak arlo onetan bere jarrerea euskerearen alde aldatu daian, kanpaina batzuen bidez aren ekintzak bultzatu eta diruz lagundu bearco leukez. Aaztu barik, erriko erakin publikoek arlo onetan ekintzetan jarraibide izan bear dabena, euron seinalapen osoa euskera utsean agertuz (UDALETXEA/AYUNTAMIENTO – UDALETXEA).

15.– Erederearen kalkoaren morrointza errezean jau-

si barik, itzulpen kutsuko testuak albo baten baztertuta itzi bear doguz. Testuok euskeraz sortu bear doguz, berba ezezagunak alik eta geien saiestuz. Euskal senari jarraitu bear jako. Eredu praktikoak eta ulergarriak erabili bear doguz (ZENTZU ALDAKETE – ITZULBIDEA).

16.– Seinalapenak, udalerrri mailan, arlo gurtiak eta Bakioko eremu osoa bere eraginpean artu bear dauz. Eta esanda dagoan lez, artuko diran neurriek zeatzak eta iraunkorrak izan bear dabe. Ezarpen eraginkorra izan bear dabe.

3.3.– Izkuntza ontasuna

Euskerea toki askotara zabaldu da azken urteotan.

Baina euskerearen aide kualitatiboa naiko baztertuta egon da orain arte. Alan da ze, ez jako bakarrik kopuruari begiratu bear, zelangotasunari be begiratu bear jako. Izkuntza idatzia jagon egin bear da, eraginik aundiena sortuten dauan lekuetan, batez be. Ez daigun aaztu, askotan, idaztien bitartez be, agozko eredia sortuten gabilzana. Itxura eta moeta txarreko izkuntza ereduak ez deustoe euskereari bape lagunduten.

Euskalkiaren garrantzia azpimarratu bear dogu, euskerearen errealitatea, istoria, aniztasuna eta jatortasuna euskalkiak gorde egiten dauazalako. Guk geuk be gorde egin bear doguzalako. Euskerearen erabilerearen edapenak izkuntza ontasunaren arazoa dakar. Berbadunen kopuru andiagora eldu aalean, jatortasuna, zuzentasuna eta egokitasuna jagon eta zabaldu bear dira.

Bakio erri euskalduna dan aldetik, euskerearen birreskurapenean garrantzi aundia dauka izkuntza ontasunak, bertoko euskerearen kalitatea jagon eta gordeko daualako, euskerearen jatortasuna, mundu sinbolikoa, eta abar..., gorde be.

Bada sasoia, bada, arlo onetan, orokorrean begituta, euskeraz idazten diran testu guztietan, agirikoetan zein ezagirikoetan, izkuntza ontasunari (kalitateari) benetan jaramon egiteko. Onartuezinezkoak dira testu asko be askotan, bein eta barriro, parra-parra egiten diran akats aundi-ugariak, bai idazkera, bai joskera, baita itzulpen mailan be. Astokeria nabarmen eta lotsagarriak!.

Orduan, leenengo-leenengotik izkuntza eredu zuzena erabili bear dogu. Olan egin ezkeru, sortuko diran gasituak eurenentan lotuko dira, alperrik andiagotu barik. Ezer argitaratu baino leen, orretarako beren-beregi egin-dako testuak zeatz-meatz aztertuko dira eta, argitaratu ostean be, onartutako testuak egokiak diranentz egiazta-

- Malgutasuna (maileguak era neurtuan).
- Joskera garbia eta zuzena.
- Argitasuna.

3.4.– **Seinlapena legearen aldetik**

Legearen aldetik administrazioa seinalapen (toponi-

ERIoTZA ETA ILLETAK



Erroma'ko katakunbak: Illobi bateko itzak.

TACCHI VENTURI, Pedro, "Historia de las Religiosas" T.II. Gustavo Gili S.S. Barcelona 1947, 163 orrialdean (eta ondorengoetan) onela dio:

"Ez dago Erroma'n apaizen kastarik, etxeko burua dalako famili bakoitzean apaiz-lanak egiten dituen". Eta, ondoren diona: "Focus Patrius, edo Etxeko Sutegia, zan etxe bakoitzeko Zaindaria eta etxe batek ez zuen aldame-nekoakin zer ikusirik arazo onetan..." Focus aretara eramaten zuten ezkonduetako etxekoandre berria; eta an, zere-moni baten bitartez, senitarte berrian sartzeko. Andik aurrera bere jainkoak etxe berriaren jainkoak izango ziran eta serbitzuan egon...

—Gure errian etxe bakoitzak famili bat edukitzen zuen.

—Ona aitatutako jaun orrek erakusten dizkigunak Erroma zaarrari buruz: 1/ Sukaldea da etxea zaintzen duena eta bera da etxeko eliza. 2/ Eliza orretako apaiz bakarra etxeko jauna da. 3/ Ara eramaten zuten etxekoandre berria ezkondu gero, elizkizun berrietara sartu zedin. 4/ Etxe berean zeuden bizidunak eta ildakoak; auek bazkarietan parte artzen zuten, baita eskeintzak jaso ere. 5/ Otsaillean, guraso eta seme-alabek, illen aldeko elizkizun bereziak egin bearra zeukaten. 6/ Illen aldeko elizkizunik aundiena Caena Novendialis (Apari Bederatziurrena) izaten zan.

—Eta, oiek danak gure artean ere egiten al ziran?

—BONIFACIO ETCHEGARAY. "Algunos Ritos Funerarios en el País Vasco". Eusko Ikaskuntza Sociedad de Estudios Vascos. San Sebastián 1928". Liburu orrek erakusten digu, xeetasun guztiekin, gauza auek nola betetzen

ziran Euskalerriko oituretan. Neuk ere badet "Euskalerria eta Eriotza" liburua, Kardabera Bilduma 10, Tolosa. 1974. Bertan luze eta zabal erabiltzen ditut eriotzari buruzko arazo guztiak eta, emen, bi itzetan esango ditudanak.

—Erromatarrak etorri aurretik, zer?

—Egoitzak ziran leizeetan eortzen zituzten gorpuak; zeuden bezela, edo bestela, gorpuzki biguñak erreta. Gerora, artzaiek trikuarrietan, eta beste euskaldunek ildakoentzako bakarrik ziran kobeetan. Etxeak egiten asi ziranean, berriz, etxe barruan, etxeko istilla barruan, edo-ta, baratzetan. Gaur egun, baratzak etxe-ondoko ortuak dira; baña, garai batean, illerri. Bizien ondoan lurperatzen


zituzten ildakoak, beti alkarrekin bear zutelako.

—Lazkao'n Emapaundi'ko etxeko andre zaarrak esaten zigun 1930'garren urtearen inguruan, sukaldeko sua ez zala itzali bear, gauetz ildakoek bear zutelako. Errautsetan arrastoak ere uzten zituztela...

—Bai, ala zan eta orregaitik estaltzen zuten errautsekin, sua bizirik irauteko. Gauza asko aldatu zitun kristautasunak eleizeetan illerriak ipiñi zituenean. Etxe bakoitzari sepultura bat. Saldu ere, biak alkarrekin saltzen ziran, sepultura bakoitza etxearenak zirelako. Zergaitik eraman zitun sepulturak eleizetara? Kristau-eleizak Katakunbetan sortu ziran; an biltzen bait ziran Eukaristia ospatzera, martin famatuenean aldera gañetan. Gero, 313'garren urtean, kristau erasoetatik aske gartatu ziranean, euren elizak (Basilica) jaso zituzten martiri oien aldera gañetan eta bazuten tokia ere, martiriari jaiera zuenentzako illobiak gertatzeko. Eliza aiek sortzetik ziran illerri.

—Ez al ziran an beste illerriak ala?

—Erroma'n ez zan illeri bereizirik; nai zuenak nai zuen baratzen eortzi zezakean ildakoa; baña, Erroma'ren arriesitik kanpo eta Katakunba'k kanpoan zeuden; kristauek euren illerri biurtu zituzten. Eta, andik sortutako elizak ere berdin. Baila, emen etxeak sepultura zuen elizan eta bien artean lokarri Gorputz-bide bat, ama eta bere semearen arteko zillaren antzera. Anda-bide ere esaten zitzaion bide orreri eta bearrezkoa zan bide orretatik irten gabe, gorpua elizara eramatea. Baserrietara egin dituzten automobilentzako bide berriak galdu dute asiera-asierako usuario zaar



MARTIRIEN Sepultura gañeko BASILICA

ori. Beste usuario asko, geienak, Vaticano II Kontzilioaren ondoren galdu dira, XX'garren eunki onen erditik aurrera.

– Sepulturak ala galdu al dira?

— Benetako elizetako sepulturak Carlos III España'ko Erregeak galdu zitun, bertan gorpuak eortzea debekatu zue-
nean. Arrezkero, sepultura oiek itxurazkoak, besterik ez; baña, sepultura gañetan egiten ziranak, egiten ziran gero ere: argizarizko argiak, ogi eskeintzak, diru txanponak Erresponso-otoitzak ateratzeko... Oiek egiten ziran jaietako Meza Nagusian eta etxeoandreak egiten zitun. Basen-ira etxeoandre berri bat ezkondata etortzean, bi gauza egiten zion etxeoanda-ndreak: Bat sukaldean, burrunzalia eman eta bestea elizan, Meza Nagusikoan, bere lana erakutsiz. On-en berri elizako Erretore jaunak ematen zuen aurreko jaiegunean. Baña, Batikano ondoren Mezak arratsaldean ematen dira eta ez dago lengo amarretako Meza Nagusi ura eta apurka-apurka sepulturak gutxitzen joan dira. Azkenik, 1970'ean edo, banku berriak eliza osoan ipintzen asi ziran apaizek eta orretzek galdu zitun betirako elizetako sepulturak.

—Ez al zan bankurik elizetan ala?

—Bai, baziran aurreko aldean, gizonentzako; baña, elizaren zatirik aundienak ez zuen bankurik eta sepultura gañetan sillatxo berezi batzuek egon oi ziran sepulturaren jabearenak. An egoten ziran etxeoandreak beuren sepulturak gobernatzen, argiak pistuz, ogiak ipiñiz, erresponsoak ateraz... Silla aurrean zeuden piztu bearrezko ziran bildumenak eta argizariolak.

—Eta illeta-bazkariak zergaitik kendu zituzten?

- Illeta-bazkariak, erromatarren usuario, geure artean ere ondo sustraitu ziran. Asieran etxea zan elia, eta etxean egiten ziran illetak eta illetako bazkariak (esanda daukagu ildakoak ere parte artzen zutela janarietan). Bazkari oietan

agertzen zan etxejoauna apaizen antzeko. Elizetan ez ziran illetak erabat amaitzen. Elizakoa amaitu ondoren, segizioak (mindunak) irtetzen zuten bata bestearen ondoren, apaiza buru zutela. Eliza-atarian otoitz bat egin eta andik bazkaltzeko tokira, segizioa joaten zan lerrorik ausi gabe. Etxea gertu ba'zan, etxera, eta bestela, aukeratutako tokira. An etxejoaunak otoitz egiten zuen bazkal-aurretik eta ondoren. Orrela amaitzen ziran illetak.

– Nortzuk joaten ziran bazkaltzera?

– Senitartekoak eta auzokoak. Jende asko. Baserriak ondatzen ziran bein baño geiagotan; baña, alaz ere, naiago zuten ondamendia orrelako bearkizunari uko egin baño lenago. Gure en-ian agintariak, erriko eta elizako, debekatu an-en, bazkariak aurrera joan dira beti, Batikano II'garrena etorri dan arte. Orretzek eman die azkena geure illeta-bazkariari. Nola? Uztekabean. Leenago illetako meza amarretan izaten zan: Meza Nagusia eta naiko luzea. Andik irten eta bazkarira. Baña, gero illetak arratsaldean asi ziran, orduan ez zegoen bazkarietako aukerarik eta egokierarik... eta kito. Urte gutxietan usuario zaar guztiak ankazgora.



ALBISTEAK



SARA'ko ILLERRIA – "GAR-ate". IL ARRIAK

– Erromatarrentzat etxe bakoitza eliza bat al zan?
 – Bai eta euskaldunentzako ere almoduz izan da beti etxea. Bera gauzarik sakratuena, gizakien eta askatasun guztien babesleku eta aterpe. Ez zeukan inork eskubiderik etxe batean sartzeko bere nagusiaren baimenik gabe... 1936'garren urteko Abenduaren 29 erre zan Etxorro, Olaberri'ko baserria, Lazkao'ren mugan. Etxe bikoitza zan eta tellatutik gora zeukan orma lodi bat eta arreri esker ez zan bigarren etxearen zatirik erre. Eta orixe azpimarratzen zuten an ibilli ziranak. Baña, paret ori ez zuten suaren salbagarrirako egin, bi etxeak bereizteko baizik. Asieran, biak ziran bi etxe eta bi eliza; orregaitik zeuden alkarrengandik barezita. Bi etxe, bi eliza, bi apaiz, bi elizkizun eta bi fami-bakoitza bere aurrekoen elizan... Oiek burutik aide egin-da zeuden; baña, etxeak erakusten zigun burutik aide egin-dakoak zertzuk ziran...
 – Gaurko etxeak erlauntzak ematen dute...
 – Gauzak zearo aldatu dira; baña, eunki asko zear, etxe-ak bakarka zeuden eta famili bakar batenak ziran. Senitar-teko guztiak izango zuten beti toki bat etxean bezela sepul-turan ere... Guztientzako segurantzi eta guztientzako elei-za... Biziak eta illak alkarrekin guztian lokarri zan etxe berean...

– Eta, maiorazgoak?
 – Etxea zaintzeko eta etxea gizaldietan zear luzatzeko zan maioraz-go. Ori zan bere eginkizunik latzena. Orregaitik, gurasoengandik eskubi-deak artzen zituenean, une artako lorrik aztune-na, ildakoen aide elizki-zunak egin-araztea izaten zan... Illetak egin, bazka-ri ta guzti, sepultura gor-de, urtebetzeak zaindu eta etenik gabe eskeint-zak egin ildakoen alde. Ildakoak gurtu eta pozik eduki, etxeko etsai biurtu ez zitezen...
 – Nundik sartu ziran oitu-ra oiek gure artean?
 – Berrero esango degu, Erroma'k zituela oitura eta siniskeri oiek eta geu-re artekoekin ongi etorri-

ko ziran, era orretara guztiak onartzeko... Bear ba'da oitu-ra erromatar oiek, kristau izan aurretik ere artuta izango zituzten euskaldunek. Dana dala, kristaua munduan bizi da, (Erroma'n bereiziki) eta munduan bizitzeko munduko oitu-rak artzen ditu bere fede edo moralaren aurka ez diranak. Eta, orixe egiten du mundu zabal osoan... Emen erromata-rrek ekarritako zenbait oitura artuko zituzten. Ori argi asko ikusten degu. Gaur egun, arlo onetan, beste askoetan beze-la, etena eginda dago. Zearoko etena. Baña, gu oraindik lantxo onetan, orduko gauzekin gabiltza.

– Kanpotik artzen al dituguz oiturak ala?
 – Guk danetatik artu izan degu beti; baña, gauzeri geure kutsua eta ikutua emanda gero. Bein artutako oiturari eus-ten, zintzo iraun degu gizaldi eta millaka urteetan zear. Ori izan omen da euskaldunen bereiztasunik argiena. Europa'n erri zaarrik ba'da, oitura zaarrak... Ez gera bakardadean bizi izan. Europa'ko erriekin izan dituguz ar-emanak eten gabe... Eutsi diogu bide orreri; baña, bereiztasunik galtze-ke.

ARRINDA'TAR ANES.



IL-KAJA BAT Erroma'n.

—Ta, Kepa, gaur zelan?

— Jauna, au gosea! Gaur urdail bategaz be larregi!.

—Ez zaitez izan sabelkoia, Kepa, esan eutson Jesu-kristok. Jan biziteko egin bear da, baina ez bizi jateko!.

>< >< ><

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



Betidanik.

BBK
~►- Bilbao Bizkaia Kutxa

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

**Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.**

**Eraikiñak, kaleak, aurtzaroen jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.**